



11.AKTA

2005eko azaroaren 10ean egindako **TOKIKO GOBERNU BATZARRA.**

LEKUA: Pasaiako Hirian eta Udaletxean.

DATA: Bi mila bosteko azaroaren hamarrean.

BERTARATU DIRA:

Lucia Querido Noceti a.
Lore Suárez Linazasoro eta
Jesús M^a García Garde j.

Lehendakaria:

Izaskun Gómez Cermeño Andre Alkatea

Lehenengo deialdian, Izaskun Gómez Cermeño alkate andrea buru dutela eta Joseba Belaustegi Cuesta Behin-behineko idazkari jauna bertan dela, goian aipatutako zinegotziak bildu dira, Tokiko Gobernu Batzarraren bilkura egiteko. Fco. Javier Pombo González j. bere ezin etorria adierazten du.

Tokiko Gobernu Batzarra legez osatzeko behar hainbat partaide etorri dela egiaztatu ondoren, lehendakariak 10:00etan bilkurari hasiera eman dio eta gai-zerrendako ondoko puntuak aztertzeari ekin diote:

1.- Aurreko batzaraldiko akta 10. 05-10-13koa irakurri eta onartzea.

Bertaratutakoek goiburuan aipatzen den akta aztertu ondoren guztien adostasunez erabaki dute onartzea eta dagokion akta-liburura transkribatzea.

2.- 8/05 kontu eta fakturen zerrenda.

Tokiko Gobernu Batzarrak honako kontuak eta fakturak onartzea erabaki du:



Zk.: 8/05

Zenbatekoa: BERREHUN ETA HOGEITA SEI MILA LAUREHUN ETA HIRUROGEITA HAMAICA EURO ETA HIRUROGEITA ZORTZI ZENTIMO (226.471,68 euro).

3.- "Zamatete Plaza urbanizatzeko proiektua" obraren 1. ziurtagiria.

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 1

Obra: "Zamatete Plaza urbanizatzeko proiektua"

Obra-zuzendariak: Francisco Zunzunaga, Pablo Samaniego eta Asier Zarrazkin.

OTEGUI GAZTAÑAGA, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HOGEITA HAMABOST MILA ETA HAMABI EURO ETA HIRUROGEITA BEDERATZI ZENTIMO (35.012,69 euro).

Indarrean dagoen udal aurrekontuko D-423/05 Disposamendutik ordainduko da.

4.- "Zamatete Plaza urbanizatzeko proiektua" obraren 2. ziurtagiria.

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 2

Obra: "Zamatete Plaza urbanizatzeko proiektua"

Obra-zuzendariak: Francisco Zunzunaga, Pablo Samaniego eta Asier Zarrazkin.

OTEGUI GAZTAÑAGA, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: BERROGEITA HAMABOST MILA HIRUREHUN ETA HOGEITA HAMABOST EURO ETA BOST ZENTIMO (55.335,05 euro).

Indarrean dagoen udal aurrekontuko D-423/05 Disposamendutik ordainduko da.

5.- "Antxo Iparra 01 C-12-A fasea-Blas de Lezo kalea Hiri Eremua berriz urbanizatzea" obraren 1. ziurtagiria.

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 1

Obra: "Antxo Iparra 01 C-12-A fasea-Blas de Lezo kalea Hiri Eremua berriz urbanizatzea"

Obra-zuzendariak: Igor Urrutia Zulueta j. (Bide, ubide eta portuetako ingeniaria, Asmatu, S.L.) eta Juan Carlos Lapazarán j. (Arkitektoa).

ARKAITZA, S.A. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HOGEITA LAU MILA BEDERATZI EHUN ETA HOGEITA HAMABOST EURO ETA LAUROGEI ZENTIMO (24.935,80 euro).

Indarrean dagoen udal aurrekontuko D-294/05 Disposamendutik ordainduko da.

6.- "Donibanerako sarrera-I. Fasea berriz urbanizatzea" obraren 7. ziurtagiria.

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 7

Obra: "Donibanerako sarrera-I. Fasea berriz urbanizatzea"

Obra-zuzendariak: Juan Carlos Lapazarán j. (Arkitektoa).

CONSTRUCCIONES OZIO enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: BERROGEITA HAMAIIKA MILA BERREHUN ETA BERROGEITA LAU EURO ETA HOGEITA HAMAR ZENTIMO (51.244,30 euro).

Indarrean dagoen udal aurrekontuko D-1634/04 eta D-1113/05 Disposamendutik ordainduko da.

7.- "Puntas Pasealekua urbanizatzea" obraren 7. ziurtagiria.

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:



Zka.: 7

Obra: "Puntas Pasealekua urbanizatzea"

Obra-zuzendariak: Juan Carlos Lapazarán j. (Arkitektoa).

CONSTRUCCIONES OZIO enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HOGEITA HAMAR MILA ZAZPIEHUN ETA LAUROGEITA HAMAR EURO
ETA LAUROGEITA ZORTZI ZENTIMO (30.790,88 euro).

Indarrean dagoen udal aurrekontuko D-1593/04 eta D-1114/05 Disposamendutik ordainduko da.

8.- A Pabela Productions elkarteari Video Clubrentzat dirulaguntza.

Gazteria eta Kirol Zinegotzi-Delegatuaren 2005eko azaroaren 7an egindako proposamena aztertuta, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez,

ERABAKI DU

LEHENENGOA.- "A Pabela Productions" Gazte Elkarteari 2005eko Bideo-kluberako 1.105 euroko dirulaguntza ematea.

Dirulaguntza 2 epeetan ordaindu beharko da:

- %60a akordioa onartutakoan.
- %40^a abenduaren bukaeran.

Hori guztia indarrean dagoen udal aurrekontuko A-1380/05 Baimendutik ordainduko da.

BIGARRENA.- Akordio honen berri interesatuari ematea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

9.- Ilunbe Arraun Elkarteari ezohiko dirulaguntza. Berria-Pasaia 2005 Ikurriña.

Ilunbe Arraun Elkarteak 2005eko Berria-Pasaia Ikurriñagatik memoria eta dagozkien faktura justifikatzaileak entregatu dituela konprobaturik, Gazteria eta Kirol Zinegotzi-Delegatuaren 2005eko azaroaren 2an egindako proposamena aztertuta, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU



LEHENENGOA.- Iunbe Arraun Elkarteari 12.000 euroko dirulaguntza ematea 2005eko Berria-Pasaia Ikurriñagatik.

BIGARRENA.- Akordio honen berri interesatuari ematea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsioen berri ematea.

Hori guztia indarrean dagoen udal aurrekontuko "1.06.00.481.452.10.03 dirulaguntza berezia Pasaian estropadak" partidaren kargutik eta A-1438/05 Baimendutik ordainduko da.

10.- Hainbat Elkarteei dirulaguntzak. UDA 2005

Gazteria eta Kirol Zinegotzi-Delegatuaren 2005eko azaroaren 7an egindako proposamena aztertuta, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGOA.-2005 UDA Kirol kanpainarengatik aipatzen diren Clubei ondorengo dirulaguntzak ematea:

- KOXTAPE SECCION PIRAGÜISMO1.365 euros
- CLUB ATLETICO TRINTXERPE.....384 euros
- PASAIA KAYAK.....1.197 euros

TOTAL.....2.946 euros

BIGARRENA.- Akordio honen berri interesatuari ematea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsioen berri ematea.

Hori guztia indarrean dagoen udal aurrekontuko A-1439/05 Baimendutik ordainduko da.

11.- Ondare erantzukizunaren inguruko hainbat erreklamazio.

A) Ondare-erantzukizuneko erreklamazioa M^a Isabel Ruiz Gomez and.ak jarria.

MARIA ISABEL RUIZ GOMEZ and.ak erreklamazioa aurkeztu zuen 2005eko abuztuaren 5ean SS-8.745-AD matrikuladun ibilgailuak jasandako kalteengatik, udal langileak Pasai San Pedroko Frontoiko Zumardian (Kutxaren parean) piboteak jartzen ari zirenean; kaltea 417,60 eurokoa da.

Udaleko Zerbitzuetako departamentuak egindako txostenean adierazten du gertaeren egunean, hain zuzen ere, mugarriak jartzen aritu zirela. Horretarako widia barautsdun zulatzeke makina erabiltzen dute; makina honi broka hozteko ura sartzen diotenez, lokatz modukoa isuri zuen.

Erreklamatu diren kalteak egin direnik ez da frogatu, zikintzea bakarrik frogatu da.

Tokiko Gobernu Batzarrera bertaratutako zinegotziek aho batez ondokoa

ERABAKI DUTE

LEHENA.- Ezestea MARIA ISABEL RUIZ GOMEZ and.ak 2005eko abuztuaren 5ean SS-8.745-AD matrikuladun ibilgailuak jasandako kalteengatik aurkeztutako erreklamazioa, Udaleko Zerbitzuetako Departamentuaren txostenean oinarrituta eta erreklamaziogileak aipatzen dituen kalteak behar bezala frogatuta ez daudelako.

BIGARRENA.- Akordio hau interesdunari jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

B) Ondare-erantzukizuneko erreklamazioa Concepción Galiñanes Ugia and.ak jarria.

CONCEPCION GALIÑANES UGIA and.ak erreklamazioa egin zuen 2005eko martxoaren 17an izandako erorikoagatik Euskadi Etorbidea 35eko espaloian –Takaroa tabernaren parean- estropezu egin eta erortzeagatik.

2005eko uztailaren 1ean jakinarazitako idatzian ondare-erantzukizuneko erreklamazioa izapidetzeko behar den dokumentazioa eskatu zitzaion.

HAAJAPEko legearen 92. art.ak ezartzen duen hiru hilabeteko epea igaro eta aipatutako dokumentazioa aurkeztu ez duenez, Tokiko Gobernu Batzarrera bertaratutako zinegotziek aho batez ondokoa

ERABAKI DUTE

LEHENA.- Txostena iraungitzat ematea eta horren ondorioz jarduketak amaitutzat jotzea.

BIGARRENA.- Akordio hau interesdunari jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

C) Ondare-erantzukizuneko erreklamazioa Soledad Calvo Azkue and.ak jarria.

SOLEDAD CALVO AZKUE and.ak 2005eko datarekin administrazioarekiko erreklamazio aurkeztu zuen 2004ko ABENDUAREN 23an Trintxerpeko Azokako eskaileretan irristatu eta erortzeagatik.



Udaltzaingoaren eta Zerbitzu, Sare eta Mantentze-lanen departamentuetako txostenak aztertu ondoren Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko abuztuaren 22an erreklamazioa ezestea erabaki zuen

SOLEDAD CALVO AZKUE and.ak 2005eko urriaren 14ko sarrera-data duen Berraztertze Errekurtsoa aurkeztu zuen Tokiko Gobernu Batzarrak erabakitakoaren aurka eta ondorengo hau eskatu zuen: 1.- Jarduketak instrukzio aldira atzeratzeko; 2.- Espedientean jasotako dokumentu guztia jakitera emateko; 3.- Indar froga bideak egiteko; 4.- Akordioa behar den bezala jakinarazteko eta 5.- Egindako kalteak nola ordaindu zehazteko.

Azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 84. art.an jasotakoaren arabera, "... 4.- *Se podrá prescindir del trámite de audiencia cuando no figuren en el procedimiento ni sean tenidos en cuenta en la resolución otros hechos ni otras alegaciones y pruebas que las aducidas por el interesado*".

Kasu honetan erorikoa gertatu izana ez da zalantzan jarri, zerbitzuaren funtzionamendua eta kaltearen (edo erorikoaren) arteko zerikusi kausala baizik.

Edonola ere behin-behineko defentsa-gabezia hori errekurtsio honek zuzenduko luke.

Lehen aipatutako arrazoi beragatik proposatu duen lekuko bidezko froga ez da beharrezkoa, eskailerek eskatzen diren segurtasun neurriak betetzen dituzten ala ez jakitea da funtsezkoa eta ez da proposatu hori frogatzeko neuririk.

Bestalde errekurtsioa prestatzeko espedientea kontsultatu ahal izateko aukera aipatu du interesdunak baina une honetan ditugun dokumentuak igortzeko eskaera bidegabea da.

Azkenik, jakinarazpena legeak aurreikusten duen bezala egin da eta

erabakia eman duen organoak egindako gertakarien balorazioan ez da akatsik frogatu ezta argudiatu ere –baieztapen soil bat besterik ez-. Hori dela eta Tokiko Gobernu Batzarrean bertaratutako zinegotziek aho batez ondokoa

ERABAKI DUTE

LEHENA.- Ezestea, 2005eko abuztuaren 22ko datan Tokiko Gobernu Batzarrak erabakitako ezestearen aurka SOLEDAD CALVO AZKUE and.ak aurkeztutako berraztertze errekurtsioa.

BIGARRENA.- Akordio hau interesdunari jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsioen berri ematea.

- Gai-zerrendatik kanpo eta aho batez bertan sartzea berretsi ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak ondokoak erabaki ditu:

12.- "Antxo Iparra 01 C-12-A fasea-Blas de Lezo kalea Hiri Eremua berriz urbanizatzea" obraren 2. ziurtagiria.

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 2

Obra: "Antxo Iparra 01 C-12-A fasea-Blas de Lezo kalea Hiri Eremua berriz urbanizatzea"

Obra-zuzendariak: Igor Urrutia Zulueta j. (Bide, ubide eta portuetako ingeniaria, Asmatu, S.L.) eta Juan Carlos Lapazarán j. (Arkitektoa).

ARKAITZA, S.A. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HIRUROGEITA BI MILA EHUN ETA HIRUROGEITA BEDERATZI EURO ETA HOGEITA HAMAHIRU ZENTIMO (62.169,33 euro).

Indarrean dagoen udal aurrekontuko D-294/05 Disposamendutik ordainduko da.

13.- Obra baimena, Lezo-Bide kalean, 8, 10 eta 12.

LINTERNERIA ELPRI, S.L. enpresak Lezo-Bide, 8, 10 y 12 jabekideen izenean aipaturiko eraikinean gas-instalazioa jartzeko eskaera aurkeztu du. Eskaera hori aztertu ondoren, Pasaiako Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, ondokoa

E R A B A K I D U

LEHENENGOA.- LINTERNERIA ELPRI, S.L. ri, Lezo-Bide, 8, 10 eta 12 jabekideen izenean eskatu duen lizentzia ematea ondorengo baldintzekin:

- a) Aipatu instalazioak behin betiko martxan jartzeko enpresa erantzuleak egin beharko dio azken errebisio eta ikuskaketa, eta nahitaez eduki beharko du Industriaren Ministerioaren Delagazioak agintzen duena.

- b) Eraikineko jabekideek ezingo dituzte jarri galdarak, akumuladoreak, berogailuak, depositoak ea. bezalako aparatuak kale aldera ematen duten balkoietan, terrazetan edota fatxadetan eta jendeak ikusteko moduan.
- c) Aparatuak balkoietan jartzekotan, proiektu tekniko bat egin beharko da aparatuek okupatzen duten espazioa ixteko eta uniformitatea, homogeneitatea eta batasun kriterioak mantzentzeko eta udalak ezarritako arautegiaren arabera onar dezan onarpen proposamena egin beharko zaio.
- d) Pasaiako Arau Subsidiarioen 062 artikulua araberan, eraikita dauden eraikinetan ezinezkoa denean gasak eta kea teilatura kanporatzeko konduktuak barrutik jartzea eta halaber igogailuak jartzea, udalak baimena eman ahal izango du ezarpen horiek patioei lotuta egitea teilaturaino proiektu tekniko bat aurkeztuz, hau teknikari konpoetenteak sinatua egonik eta bisatu ofizialarekin. Ez da baimentzen sukaldeko nahiz eta kalefakzioaren aparatuen gasak eta kea zuzenean kanporatzea.
- e) Pasaiako AASSen 072 artikuluan aipatzen diren NTE-ISH eta NTE-ISV-en arabera, hauek etxebizitzetan agintzen dute eta hauen erabilpenetan, gas galderek botatzen duten gasa eta kea teilatura kanporatu beharko dira horretarako espreski jarritako hodi baten bidez.
- f) Aurreko puntuan aipatzen dena ezinezkoa izanez gero, eta hau teknikoki demostratu beharko litzateke, uztailearen 12ko 2000 (BOPV 19/09/00 Agindua bete beharko da eta etxebizitzetan gasifikazio eta kalefakzio instalazioei buruz esaten dena.
- g) Gas Pasaiaren baimena.
- h) Pasaiako AASS-en 175 artikulua araberan, finka bakoitzaren hartune nagusitik kontsumitzeko lekuetaraino gorako kanalizazio bertikalak barru aldeko patioetatik joango dira beti edota konduktzio-kaxatik (aireztatua eta sarbideduna); kanpoaldeko fatxadatik oso disimulatua geratzen bada bakarrik izango da onartua (esekitokien barrutik, sareta barrutik kaxa aireztatutik ea. edo fatxadaren konposizio arkitektonikoaren barruan ongi egokituko den soluzioaren baten bidez).
- i) Presioaren kaxa erregulatzailerak inpaktu bisual gutxien izango duten painuetan joango dira.
- j) Aukeratutako fatxadan ahalik eta modurik ezkutuen erabiliko da.

BIGARRENA.- Interesdunari ebazpen hau jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsioen berri ematea.

HIRUGARRENA.- Akordio honen berri Udal Kontu-hartzaitzari ematea dagozkion tasak eta zergak likidatzeko.



Lizentzia honetako lanen aurrekontua 7.350 eurokoa da eta 5.000 euro eraikinaren elementu komunetarako da.

Eta aztertzeko beste gairik ezean, 10:30etan amaitu da bilkura. Bertan eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, nik, behin-behineko idazkariak, akta hau egiten dut alkatearen oniritziarekin.